

## 1936ko gerrako hobi bat aurkitu dute Etxalatzen, eta hiru gorpu atera dituzte

**ETXALATZ** • Etxalatzen (Nafarroa), 1936ko gerra garaiko hobi komun batetik hiru gorpu atera zituen atzo Aranzadi zientzia elkarteak. 2018an, handik gertu beste hobi bat aurkitu zuten, bederatzi gorpurekin. Testigantzetan oinarrituta aurkitu dituzte. 1936an, inguru horietan hamar hildako ikusi zituztela kontatu zuten haur batzuek. Horietako bederatzirioenak eta 1978an aurkituta emakume batenak izan daitezke.



Etixerat elkarteko kideak, atzo, Donostiako prentsaurrekoan. JON URBE / FOKU

## Urruntzearen aurkako elkarretaratzeak egingo dituzte hainbat hondartzatan

**DONOSTIA** • Etixerat euskal preso eta iheslariaren senide eta lagunak elkarrekin abuztuaren 4an eta 10ean urruntzearen aurkako elkarretaratzeak egingo ditu Euskal Herriko hainbat hondartzatan. Preso eta erbesteratuak «etxean eta bizirik nahi eta behar» dituela esanda antolatu du aurten ere ekinaldia. Era berean, abuztuaren Iean Azeptian (Gipuzkoa), Loiolan, agerraldia egingo duela adierazi du Etixerat elkarteak, Donostian atzo egindako prentsaurrekoan.



**ARATZ ERRETEGIA**  
Zabaleta anaiak

**“25 urtean baserritarrekin eta arrantzaleekin lanean, Lurreko eta Itsasoko produkturik onena lortu nahian, betiere eta sakrifizio handiz. Produktu horiek oinarri harturik, plater tradiziozkoak egiten ditugu, modernotasun kutsukoak”.**

**ARATZ**  
zabaleta anaiak

Jaunartzeak  
Enpresa bazkariak  
Talde bazkariak  
Ospakizunak



ERRESERBAK  
943-21 92 04

HELBIDEA  
Igara bidea, 15  
20018 DONOSTIA  
Gipuzkoa  
info@restaurantearatz.com



## Klima aldaketaren hamabi orduak

Frídays For Future edo Etorikizunaren Aldeko Ostiralak egitasmoak beste urrats bat egin du Bilbon: hamabi orduko elkarretaratzea egin zuten atzo, udaletxe aurrean, klima larrialdia salatu eta politika aldaketa eskatzeko. 09:00etatik 21:00etara hainbat lagun igaro ziren, txandaka, tarte horretan egin zituzten ekitaldian parte hartzerako. Kartel tailerra, bazkaria eta eztabaida izan zituzten. Puntuak ere banatu zituzten. Adibidez, joan zirenek bana jaso zuten; hondakinik sortu gabe bazkaldu zutenek, hiru; eta lagun bat eraman zutenek, lau. S. GARCIA

## Gonbidapenak

Ikusi al dituzu Guggenheimeko erakusketa berriak?

Uda honetan ere, BERRIALagunak

**GUGGENHEIM BILBAO museora doan**

**2 gonbidapen BERRIaren eskutik!**



Hona hemen bilduma finkoaz gain erakusgai dauden erakusketen egutegia:

**Guggenheim Bilbao Bildumako Maisulanak;**  
Erakusketa Iraunkorra

**Jenny Holzer.**  
Zera deskribaezina;  
irailaren 9ra arte.

**Atzera begira.**  
Giorgio Morandi eta Antzinako maisuak;  
urriaren 6ra arte.

**Lucio Fontana.**  
Atarian;  
irailaren 29ra arte.

**Gerhard Richter.**  
Itsas paisaiak;  
irailaren 9ra arte.

**Aukeratu** noiz datorkizun ondo  
**berri laguna** webgunean,

eta gonbidapenak etxera bidaliko dizkizugu, **doan!**

[Berria.eus/berrialaguna/zozketak/gonbidapenak](http://Berria.eus/berrialaguna/zozketak/gonbidapenak)

**Oharra:** BERRIALagun bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu.  
Gogoan izan: abantailaz gozatzeko, BERRIALagun kontua sortua izan behar duzu.

**berria**  
mundua-euskararen emana